



Arartekoaren 2015R-1747-14 ebazpena, 2015eko uztailaren 31koa. Horren bidez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio zabor-poltsa espaloian uzteagatik jarritako isuna ondoriorik gabe utz dezala.

Aurrekariak

1. (...) -k egindako kexa bat jaso dugu erakunde honetan, zabor-poltsa espaloian uzteagatik ustez egindako arau-hauste bat dela-eta Donostiako Udalak jarritako isunarekin ados ez dagoelako (ES: 2014/30).

Pertsona horrek esan duenez, udalak salatutako kasuaren egoerak ez ditu behar bezala aztertu, azaldutako alegazioen arabera, espedientearen instrukzioan eskaintako izapideetan, egotzen zaion jokabidea berariaz ukatuz. Zehazki, aipatzen du aurkeztutako frogak, agenteek bilketa-puntutik kanpo egindako argazkiek, egotzitako egitateak ez dituela frogatzen; izan ere, bere izena duen publizitateko gutun-azala toki horretara hainbat erataria iritsi ahal izan da.

2. Kexan adierazitako gaiak baloratu ostean, kexa aurkeztutako pertsonak alegatutako arrazoiei buruzko informazioa eskatzen diogu udalari.

Gainera, ikusita emandako dokumentazioa eta arrazoi beragatik erakunde honetan jasotako kexa-espedientei lotutako aurrekariak, udalari zenbait gogoeta helarazten dizkiogu balora eta egiazta ditzan. Hala, argudiatzen dugu udalak kexagileari 250 euroko isuna jarri ziola, uztailaren 28ko 22/2011 Legean –kutsatutako hondakin eta lurzoruei buruzkoan– jasotako legez kanpoko egoera batengatik. Zenbateko horrek arau-hauste arinetarako zerbitzua arautzen duen udal ordenantzan bertan aurreikusitako gehienekoa gainditzen du.

2014ko abuztuaren 11ko gure ebazpenean adierazi genien moduan, 625/2014 kexa-espedientearen, lege sektoriala aplikatzeak legearen aurka egiten du, zerbitzua arautzen duen bere araudia bera egitate-bidean ondoriorik gabe utziz, une horretan indarrean zegoena.

Hondakinen ordenantza beraren azterketatik argi eta garbi ondorioztatzen denez, udalaren borondatea da (ordezkaritza-organo eskudunak adierazita), arau sektorialaren esparruan, gehieneko zenbatekoa erabaki duena arau-hauste arina bete izanagatik estaldura-arauak uzten diona baino askoz txikiagoa.

Aipatutako gure ebazpenak ere udalaren argudiaketari erantzuten zion, hau da, egindako arau-haustea ez dela *"adierazitako puntuetatik kanpo egindako*





zabor-uztea", zerbitzua arautzen duen ordenantzan ezarritako motaren arabera, baizik eta *"edozein hondakin-motaren kontrolik gabe nonahi utzi, isuri edo deuseztatzea"* baten aurrean gaude, Hondakinen Legearen 46.3.c) artikulua erabakitakoarekin bat etorritik.

3. Donostiako Udalak gure eskaerari honako era honetan erantzun zion, nahiz eta eskatu zitzaion administrazio-espeditentearen kopiarik eman ez:

"(...) bilketa puntutik kanpo zeuden hondakinak agertzen dituzten argazkiek" ez dituztela egotzitako gertakariak frogatzen esaten da. Horri buruz, jakinaraz behar dizut espeditentearen bideratzaileak 2014ko martxoaren 12an egindako Ebazpen Proposamenean esandakoa:

"Espedientepekoakurkeztutako alegazioa dela-eta, idatzi honek sinatzen duenaren iritziz, errugabetasun presuntzioa indargabetzen duen kargu-froga nahikoa dago; izan ere, ateratako ondorioa dedukzio prozesu koherente baten emaitza logikoa da eta errekurtsogileak planteatutako hipotesiak, hau da, bereak diren dokumentuak beste pertsona baten ekintzen ondorioz agertu direla behar ez den tokian, euskarririk ez duten usteak dira, kontuan hartzen badugu dauden aztarnek gertaera posible bakarra iradokitzen dutela (...) andreak utzi zituela hondakin horiek, araua hautsita."

Kale horretako beste bizilagun batek aurkeztutako kexaren harira jakinarazi genizun moduan hondakinak utzi ziren aldean, auzotarrek behin eta berriz hausten dituzte hondakinak uzteko arauak. Informazio kanpainak eta bilerak egin dira auzoan, baina ez da emaitza positiborik lortu. Egindako arau- haustea garrantzi handikoa da, behin-eta berriz egiten delako, jakitun izanda eta bide publikoaren osasungarritasunari larriki erasanez Arau-hauste horiek Udala behartzen dute hondakinak kentzeko eta garbitzeko bitarteko osagarnak erabiltzera erantsitako kostu bat dutenak eta, baldintza normaletan, erabili behar ez lirakekeenak.

Beste kexa bat zela-eta eman zenigun informazioari dagokionez, hau da, lege sektorialak ondorerik gabe uzten duela, egitate-bidez, gure araudia, adierazi behar dizut 2011ko uztailaren 28ko Hondakinen eta Kutsatutako Lurzoruen 22/2011 Legeko 46.3.c artikuluan jasotako tipoa dela zehaztasun handienaz deskribatzen dituen zehapen prozedura hau eragin duten gertakariak. Eta gertakari horiek berriazko ez zilegia direla Ordenantzan jasotakoarekiko, kontuan hartu behar delako lehen azaldu duguna arau haustea behin eta berriz eta jakitun izanda egiteaz eta bide publikoaren osasungarritasunari egiten dion erasan larriaz.





Hiriko alde horretan informazio kanpainak, bilerak eta ikuskaritza lanak egin dira aurrez, baina ez dute lortu jokaerak aldatzea. Horrek arazo batzuk sortu ditu, orain neurri handi batean konpondu direnak, ikuskaritza lanei esker.

Azken buruan, horrelako lanetan egiaztatu da hondakinak kontrolik gabe abandonatzen direla, haiek uzteko moduak eta denborak ez betetzea "baino-zerbait larriagoa eginez. Lehen aipatutako 22/2011 Legeak jokaera horien kontrako zehapenak ezartzen ditu.

Bestalde, Donostiako Udalaren Hondakinen eta Kutsatutako Lurzoruen Ordenantza dela-eta, beharrezko izapideak egiten ari dira lege horretara egokitzeko. Izan ere, gaur egun biltzen dituen arauetako batzuk Hondakinen 10/1998 Lege indargabetuan oinarritzen dira"

4. Gure informazioa-eskaeran aipatutako 2014ko abuztuaren 11ko GOMENDIOAREKIN batera¹, 2015eko maiatzaren 19ko GOMENDIOA² ere izapidetu dugu; hura espaloian zabor-poltsa ustez uztegitik jarritako isuna jartzeari buruzkoa da ere. Bi gomendioak ez dira onartu.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, ikusita salatutako egitateei aplikatu beharreko araubide juridikoari buruzko desadostasunak, hondakinak biltzeko udal zerbitzuko aplikazioaren arau-esparrua aztertuko dugu. Donostiako Udalak argudiatu duenez, uztailearen 28ko 22/2011 Legea –kutsatutako hondakin eta lurzoruei buruzkoa (Hondakinen Legea aurrerantzean)– zuzenean aplikatu behar da, salaketa eragin zuten egitateak zehaztasun handienarekin jasotzen dituen baita, hondakinak kontrolik gabe uzteko arau-haustea ez baita jasotzen egitateak gertatutako unean indarrean zegoen Hiri Hondakinak Biltzeko Ordenantzaren ezarritako motetan.

Gai horri jadanik erantzun zitzaion udalaren aurrean aurrez aipatutako gure gomendioetan Donostiako Udalak jarritako isunarekin, zabor-poltsa bat xede horretarako jarritako edukiontzietatik kanpo ustez uztegitik.

Orduan, esan genuen udalerriek, beren eskumenen eremuaren barnean, arauzko eta autoantolaketarako ahalmenak zituztela, besteak beste, bai eta zehapenak jartzeko ahalmena ere (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen –Toki Araubideari buruzko Oinarriak Arautzen dituenari buruzkoaren– 4.1 a) eta f) artikulua). Esparru horretan, udal ordenantzak toki-erakundeek tradizionalki

¹ Arartekoaren 2014R-625-14 ebazpena, 2014ko abuztuaren 11koa. Horren bitartez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio zabor-poltsa bat espaloian uztegitik jarri zuen zigorra indargabetzeko.

² Arartekoaren 2015R-1526-14 ebazpena, 2015eko maiatzaren 19koa. Horren bidez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio zabor-poltsa bat espaloian uztegitik jarri zuen zigorra indargabetzeko.





izan dituzten tresna dira ematen diren zerbitzuak arautzeko, zehapenerako gaia barne ezarritako araubide juridikoa betetzen ez den kasuetan.

Aipatutako gomendioetan jadanik azaldutako argudioen harira, Hondakinen Legearen 12. artikulua arlo horretako administrazio publikoen administrazio-eskumenak arautzen ditu. Zehazki, 5. idatz-zatiak toki-erakundeei dagozkien eskumenak zehazten ditu, honako baldintza hauetan:

*“a) Como servicio obligatorio, la recogida, el transporte y el tratamiento de los residuos domésticos generados en los hogares, comercios y servicios **en la forma en que establezcan sus respectivas ordenanzas** en el marco jurídico de lo establecido en esta Ley, de las que en su caso dicten las Comunidades Autónomas y de la normativa sectorial en materia de responsabilidad ampliada del productor....”*

lido beretik, Legearen 17.2 artikulua zehazten du *“La entrega de los residuos domésticos para su tratamiento se realizará **en los términos que establezcan las ordenanzas locales**”*

Beraz, lege-esparru horretan, udal ordenantzek zehazten dute edukitzaileak etxeko zaborrak entregatzera behartuta daudela eta, horren ondorioz, entregatzeko modua izango da, besteak beste, arau-haustea eta dagokion isuna ekar dezaketena. Ordenantzak berak erabiltzaileen entregatzeko erak arautzen ditu, haiek bizi diren hiriko guneen arabera (edukiontzia, atari aurreko zabor-poltsak, bilketa pneumatikoa...).

2. Izapidetutako espedientearen kopia osoa ez izatean, guk eskatu arren ez zaigulako eman, gure balorazioa egiteko orduan, kexagileak emandako dokumentazioa eta aurrekarietan transkribatutako udalaren erantzuna bakarrik aintzat hartuko ditugu. Ondorio horietarako, azpimarratu behar dugu ez dugula zerbitzu juridikoen inolako txostenik jaso gure informazio-eskaeran azaldutako gogoetei buruzko balorazioari buruz eta kexagileak aurkeztutako alegazio eta errekurtsioei buruz. Erabili ahal izan dugun dokumentazio bakarra Azpiegitura eta Hiriko Zerbitzuen zinegotzi ordezkariak sinatutako ebazpen eta erantzunei dagokiena izan da.

Udaltzainek egindako eta txostenari erantsitako argazki-erreportajearen arabera, 2013ko abenduaren 19koa, interesdunaren izena eta helbidea agertzen diren gutun-azal baten argazki bat jasotzen da, bai eta sei zabor-poltsa agertzen diren beste argazkia bat ere; hirugarren batean, espaloian eta gutunontzien aurrean utzitako poltsa beltz bakar bat ikusten da. Jardueraren txostenak honako hau zehazten du:

“Que los Agentes proceden a la búsqueda de indicios o datos de quienes pudieren estar relacionados con el incumplimiento reiterado que se detecta en la zona de la obligación de depositar los residuos domiciliarios en los lugares habilitados al efecto.





Que para ello se procede a la apertura de las bolsas de basura depositadas en vía pública y fuera de los contenedores, siendo la totalidad de los datos reflejados en el presente documento el resultado de las pesquisas realizadas.”

Egitate horiek ikusirik, kexagileak bere alegazioetan adierazten du: zabor guztia birziklatzeko ohitura duela; tokia bere etxetik urrun dagoela; zaborra bere etxetik gertuen dituen bilketa-puntuetan uzten duela; ez duela inoiz zabor-poltsa beltzik erabiltzen argazkian agertzen den moduan; zalantzezkoa dela bere datuak ageri diren eta hain garbi dagoen gutun-azal hori poltsa batean aurkitu ahal izatea zabor organikoarekin nahasita, eta bere izena duen publizitateko gutun-azal hori toki horretan modu askotara iritsi ahal izan dela; izan ere, kexagileak papera dagokion edukiontzian birziklatzen du beti, baina gerta daiteke, gutuna postontzitik jasotzean, eta publizitatea izateagatik, atariko paperontzian uztea, eta garbitzaileak ondoren bertatik jaso izatea.

Alegazioari erantzunez, ebazpen-proposamenak honako hau xedatzen du:

“Espedientatuak aurkeztutako alegazioari dagokionez, hau izenpetzen duenak errugabetasun presuntzioa indargabetzeko nahikoa kargu froga existitzen direla ulertzen du, ondorioztatutakoa prozesu deduktibo koherente baten emaitza delako, kontuan izanik errekurtsogileak azaltzen duen hipotesiak proposatzen duela beste pertsona baten ekintzak azaldu lezakeela dokumentuen existentzia; horiek ordea oinarririk gabeko usteak direla argi geratzen da eta ondorioz, zantzu guztiek unibokoki aditzera ematen dute poltsa lagatzea (...) andreak gauzatu zuela, araua hautsiz.”

Salaketa-txostenean jasotako egitateen kontakizunetik ondorioztatu daitekeenez, honako egoera honen aurrean gaude: zabor-poltsa baten barnean kexagilaren helbidea zuen propagandako gutun-azal bat zegoen, baina horrek ez du ziurtatzen hura egitatearen egilea zenik; izan ere, arau-haustea egin ahal izan zuen pertsona ez da identifikatu agenteak ez direlako egitateen zuzeneko lekuko izan; handik ondoriozta daiteke ez zaudela presente ere zabor-poltsa espaloian utzitako pertsona identifikatzeko.

Bestalde, 2014ko ekainaren 19ko ebazpenak, kexagileari 250 euroko isuna jartzea ebazten duena, aipatzen duenez, espedienteen dauden dokumentuetatik, adierazitako egitateak egiaztatu dira, eta egindako alegazioek ikuspegi hori indargabetzeko arrazoirik ez dute eman, are gehiago Hondakinen Udal Ordenantzaren 11. artikularen 4. idatz-zatiak xedatutakoa kontuan hartuz; honako hau dio:

“Hondakinen erabiltzaileak, sortzaileak eta edukitzaileak behartuta daude dagokien aktetan adierazitakoa betetzera, aurkako frogarik izan ezean, zeina izango baita haien kontura.”





Udal ordenantzak egindako aurreikuspenak honako honi erantzuten dio: azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren– 137.3 artikulua finkatzen duen errugabetasun-presuntzioaren lege-mandatuari, honako hau erabakitzen duena:

“Agintaritza aitortzen zaien funtzionarioek egitateei emandako sinestamenduek, legez behar diren betekizunak dituen agiri publikoan jasotzen badira, froga-balioa izango dute; baina herritarrek ere beti adierazi edo aurkez ditzakete frogak, beren eskubideak edo interesak aldezteko.”

Ondorio horietarako, Auzitegi Gorenaren Epaiak, Hirugarren Sala, Administrazioarekiko Auziarena, 5. Sekzioa, 2013ko irailaren 15eko Epia (kasazio-errekurtsoa), akten froga-balioa mugatzen du, ondorengo baldintzetan:

*“Respecto del valor legalmente atribuido de las actas de inspección, en la misma STC 70/2012, de 16 de abril, se indica que “(...) es doctrina reiterada de este Tribunal que las actas de inspección o infracción, en las que los funcionarios competentes consignan los hechos que observan en el curso de sus comprobaciones e investigaciones, pueden ser consideradas por la Administración como medios de prueba capaces de destruir la presunción de inocencia, sin perjuicio de que no gocen de mayor relevancia que los demás medios de prueba admitidos en Derecho y, por ello, no hayan de prevalecer necesariamente frente a otras pruebas que conduzcan a conclusiones distintas (SSTC 76/1990, de 26 de abril, FJ 8 ;14/1997, de 28 de enero, FJ 7; y35/2006, de 13 de febrero , FJ 6)”, añadiendo respecto del alcance probatorio de las actas de inspección que “(...) su valor probatorio sólo puede referirse a los hechos comprobados directamente por el funcionario, quedando fuera de su alcance las calificaciones jurídicas, los juicios de valor o las simples opiniones que los inspectores consignan en las actas y diligencias (STC 76/1990, de 26 de abril, FJ 8), completándose tal doctrina ---en relación con el alcance de la previsión contenida en el artículo 137.3 de la LRJPA, en la STC 35/2006, de 13 de febrero , conforme a la cual tal precepto “(...) no establece tampoco una presunción iuris et de iure de veracidad o certeza de los atestados (que sería incompatible con la presunción constitucional de inocencia), ya que expresamente admite la acreditación en contrario. A ello debe añadirse que **ese valor probatorio de los hechos reflejados en el atestado sólo puede referirse a los hechos comprobados directamente por el funcionario actuante**, quedando fuera de su alcance las calificaciones jurídicas, los juicios de valor o las simples opiniones que los funcionarios a los que se reconoce la condición de autoridad consignan en sus denuncias y atestados. En suma, según se deduce de la doctrina de este Tribunal, el alcance de la denuncia en la vía administrativa no es otro que el de permitir la incoación del oportuno procedimiento sancionador, en cuya tramitación el interesado podrá alegar lo que a su derecho convenga*



y aportar los medios de prueba que combatan la prueba de cargo presentada por la Administración y en virtud de la cual se le imputa la infracción constitutiva de sanción.”

Epaiake ere honako hau eranstean du:

*“También esta Sala y Sección, con carácter general, y a propósito de la presunción de inocencia, ha declarado --- STS de 20 de septiembre de 2012 , Recurso Ordinario 371/2011--- que la misma "(...) comporta que la sanción esté basada en actos o medios probatorios de cargo o incriminadores de la conducta reprochada; **que la carga de la prueba corresponde a quien acusa, sin que nadie esté obligado a probar su propia inocencia, y que cualquier insuficiencia en el resultado de las pruebas practicadas, libremente valorado por el órgano sancionador, deba traducirse en un pronunciamiento absolutorio (SSTC 76/1990, de 26 de abril, FJ 8 b);y 169/1998, de 21 de julio, FJ 2]**”*

Finean, aztertutako dokumentaziotik ezin da argi eta garbi eta zalantzarik gabe ondorioztatu, agenteen akta behar besteko karguko frogabaliabidea denik, erreklamatzailak arau-haustea egin izanaren zuzeneko lekuko ez baitziren izan une batean ere. Gainera, instrukzioan ere ez da beste inolako frogarik jaso; nolana ere, ondoren adieraziko dena bete ahalko da aplikatutako arau-hauste motari eta kexagileari jarritako isunari dagokionez.

3. Udal ordenantzaren 18. artikulua etxeko zaborrak uzteko era arautzen du, eta ondorengo esaten du:

*“Erabiltzaileek Ordenantza honetan ezarritako bilketa-mota bakoitzaren arabera, adierazten zaien **moduetan**, egunetan eta orduetan utzi beharko dituzte hondakinak.”*

Bestalde, 19.8 artikulua **hondakinak nonahi uztea** debekatzen du, erabiltzaileek hondakinak ordenantzaren IV. eta V. tituluetan ezarritako tokietan eta esandako eratan finkatutako ordutegien arabera uzteko betebeharra ez betez.

Dagokion isuna jartzeko proposamena egiten duen hiriko zerbitzuburuak, udaltzainak egindako salaketa ikusirik, honako hau adierazten du:

“La zona en donde se realizaron los depósitos está siendo objeto de una falta de cumplimiento continuado...”

*Por lo anteriormente expuesto y por ser evidente que existe una clara intención de evitar cumplir con las ordenanzas municipales y afectando claramente de forma negativa al medio ambiente y salud pública se considera que debe ser aplicada la Ley 22/2011 de 28 de julio de residuos y suelos contaminados la cual en su artículo 46 apartado 3c) **“El***



abandono, vertido o eliminación incontrolado de cualquier tipo de residuos no peligrosos sin que se haya puesto en peligro grave la salud de las personas o se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente”.

Dado que el volumen de basura depositada por el infractor no es grande, se considera que se puede definir la infracción con LEVE aplicando el artículo 46 apartado 7.4 b) “La comisión de algunas de las infracciones indicadas en los apartados anteriores cuando por su escasa cuantía o entidad no merezcan la calificación de muy graves o graves””.

Beraz, proposamenak dio udal ordenantzak ez betetzeko asmo argia izan dela, hau da, egindako arau-haustea udalaren erregulazioaren arau-hauste bati dagokiola, eta ondoren gaineratzen da arau-hauste horrek ingurumenari eta osasun publikoari eragiten diola, Hondakinen Legean txertatu ahal izateko. Plangintza hori, gutxienez, egiaztatutako egitatearekin kontrajarrita dago, hau da, hiriko beste toki batzuetan ordenantzak zehazten du zabor-poltsak kalean zuzenean utzi behar direla (Alde Zaharreko ostalaritza-establezimenduak, adibidez), eta kasu horretan, antza denez, ingurumena eta osasuna ez direla kaltetzen.

Hiriko zerbitzuburuak jartzea proposatzen duen arau-hauste motaren aurkakotasunagatik, uztailaren 28ko 22/2011 Legearen –kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzkoaren– 46.3c) artikulua aplikatuz, ustezko arau-haustea egindako unean indarrean dagoen ordenantzaren 70. artikulua honako hau dio hitzez hitz:

“3.Arau-urratze arinak ondorengoak dira:

- a) Hondakinak edukiontzietatik kanpora edo hondakinak uzteko adierazitako lekuetatik kanpora uztea, edo zerbitzuaren egutegitik edo ezarritako ordutegitik kanpora uztea, araudi honetan 18. artikuluan eta IV eta V. tituluetan aurreikusitako ordutegiei buruzko eta hondakinak uzteko tokiei buruzko arauak bete gabe utziz, larriagotzat jotzen ez den arau-urratze bat izatera iristen ez denean.”***

Aipatutako arau-hauste arinaren definizioa jarduera-aktak deskribatutako egitateekin bat dator guztiz; izan ere, edukiontzitik kanpo utzitako egoera bat izango zen, baina preskribatutako tokian eta zabor-poltsan, ordenantzak berak eskatzen duen moduan, argazki-erreportajeak adierazten duenaren arabera; hala, zail ikusten da egoera horietan zabor-uztea kontrolik gabekotzat jotzea edota nonahi utzi dela jotzea.

Bi testuak alderatze hutsetik zaila da ondorioztatzea Legearen 46.3c) artikuluan ezarritako arau-haustek salaketa eragin zuten egitateak zehaztasun handiagoarekin jasoko duela. Alderantziz da gehiago, hau da, 70.3 a) artikulua arau-hauste arina askoz zehatzagoa da, eta gertatutako



egitateak hitzez hitz jasotzen ditu, hots, *"Hondakinak edukiontzitik kanpo uztea..."*. Ordenantzan ezarritako arau-hausteko jokabide hori, behar zuen moduan, Legean ezarritako arau-hauste orokorrenaren *"barnean"* geratzen da, baina ez alderantziz.

Salatutako egitateei aplikatutako arau-hauste mota ez datorrela legearekin bat ondorioztatzeko (gure iritziz behar bestekoak izan beharko ziren aurreko gogoetetz gain), Legeak berak ildo beretik ondorioztatzen uzten du. Hala, 49.3 artikulua dioenez, *"En el supuesto de abandono, vertido o eliminación incontrolados de los residuos cuya recogida y gestión corresponde a las Entidades Locales de acuerdo con el artículo 12.5, así como en el de su entrega sin cumplir las condiciones previstas en las ordenanzas locales, la potestad sancionadora corresponderá a los titulares de las Entidades Locales."*

Hau da, Legeak berak hondakinak kontrolik gabe nonahi uzteko kasuak bereizten ditu, hondakinak tokiko ordenantzetan ezarritako baldintzak bete gabe entregatzen diren kasuetan.

4. Aurreko argudiaketaz gain, zehapen arloko benetako arau orokorrak (otsailaren 20ko 2/1998 Legearen –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak zehatzeko ahalmenari buruzkoaren– arabera) zehapen-prozedurari aplikatuko zaizkio ordenantzan (65. artikulua) jasotako arauak ez betetzeagatik. Horrenbestez, arau-hausteak ahalik eta zehaztasun handienarekin tipifikatu behar direla dioten araua aplikatuz, ordenantzaren 70.3 artikuluan tipifikatutako arau-hausteak salatutako egitateei zehaztasunez erantzuten dio. Ondorio bera lortzen da ondorengo arautik: kasu zehatz bakoitzean egindako arau-haustea zein izan den erabakitzeko, arau-hauste moten deskribapenaren barneko elementuei erreparatuko zaie bakarrik (aipatutako otsailaren 20ko 2/1998 Legearen –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak zehatzeko ahalmenari buruzkoaren– 4. eta 13. artikulua).

Horren ondorioz, zehapen-ahalmena egikaritzeko erregulazioa ere aplikatuz, uste dugu udalak 2014ko ekainaren 19ko ebazpena ondoriorik gabe utzi behar duela; haren bidez, kexagileari 250 euroko isuna jartzen zaio, arau-hauste arinaren erantzule izateagatik, uztailaren 28ko 22/2011 Legearen –kutsatutako hondakin eta lurzoruei buruzkoaren– 46.3.c9 eta 46.4. b) artikuluekin bat etorritik.

Horregatik, udalak, arau-haustearen frogaren balorazioari lotutako gogoetak baiesten diren kasurako, espedientea dagokion izapidera eraman beharko du eta, nolana ere, ebazpen-proposamenaren aurreko unera; bertan lege-erreferentziak (ustezko arau-hausteagatik) Hondakinak Biltzeko Ordenantzarari igorriko zaizkio, eta egokiak izan zitezkeen zehapenak une horretan indarrean dagoen udal araudiaren arabera. Dena den, ondorio horietarako, aurrez aztertu beharko du egindako ustezko arau-haustea preskribatuta dagoen ala



ez, arau-hauste arinetarako adierazitako sei hilabeteko epea igaro izanagatik (otsailaren 20ko 2/1998 Legearen –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak zehatzeko ahalmenari buruzkoaren– 22. artikuluan adierazitakoa).

Nolanahi ere, eta espedienteko instrukzioaren ondorioetarako, parte hartzen duten egoera aringarri eta astungarriak kasu bakoitzean batera neurtzeko betebeharra aipatu behar dugu, egilearen erruduntasun-mailaren eta zehapenaren arteko proportzionaltasuna bilatuz. Dena den, arau-hauste bakarrerako edo arau-hausteen mailarako ezarritako zehapen larriena jarriko ahalko da soilik neurketaren emaitza nabarmena eta oso astungarria denean (otsailaren 20ko 2/1998 Legearen –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak zehatzeko ahalmenari buruzkoaren– 14. artikuluen 3, 7 eta 8 idatz-zatiak).

Alde horretatik, espedientearen instruktoreak bere proposamena idazteko orduan, kasuan parte hartzen duten egoerak behar bezala arrazoituz neurtu beharko ditu erruduntasun-maila erabakitzeko, kontuan hartuz ordenantzaren 71 c) artikulua arau-hauste arinetarako isun modura zehazten dituela: kargu hartzea nahiz 60 euro arteko isuna.

Finean, udalak, zehapen-espediente honen izapideak egiteko, ikuspegi horiek aintzat hartu behar ditu; haiek guztiak zehapen-araubide aplikagarriaren gaia agintzen duten printzipio zein araei buruzkoak dira.

5. Udalak bere erantzunean aipatutako ordenantzaren aldaketari dagokionez, esan behar da 2015eko maiatzaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (298. zenbakia) hiri-hondakinak biltzeko ordenantzaren testu bategina argitaratu dela, eta bertan 2015eko martxoaren 3ko osoko bilkuran hartutako erabakiz egindako aldaketak sartu direla. Aldaketa hori ezin zaio kasu honi aplikatu baina, hala ere, hemen azaltzen diren gogoetak indartuko zituen, arau-hauste arinen zenbatekoak eguneratzeak (hala, izapidetu ditugun kexa-espedienteetan ezarritako zenbatekoari estaldura ematen zaio), eta zaborra uzteko tokiei buruzko xehetasun handiagoak, edukiontzienak ez direnak, eta zehazki bilketa pneumatikoko sistemaren gutun-ontziei buruzko zehaztapenak.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan agindutakoaren arabera, Donostiako Udalarari honako hau adierazten zaio:





GOMENDIOA

1. Aurretiazko beharrezko izapideen ondoren, Azpiegitura eta Hiri Zerbitzuen zinegotzi ordezkariaren ekainaren 19ko ebazpena ondoriorik gabe utzi dezala; haren bidez, kexagileari 250 euroko isuna jartzen zaio, arau-hauste arin baten erantzule izateagatik, uztailaren 28ko 22/2011 Legearen –kutsatutako hondakin eta lurzoruei buruzkoaren– 46.3.c) eta 46.4 b) artikuluen arabera, legearen aurkakoa baita.
2. Arau-haustea preskribatu gabe dagoen kasuan eta instrukzioarekin aurrera egitea egokitzat jotzen badu, espedientea dagokion izapidera eraman dezala eta, nolana ere, ebazpen-proposamenaren aurreko unera; bertan lege-erreferentziak (ustezko arau-hausteagatik) salaketaren unean indarrean dagoen Hondakinak Biltzeko Ordenantzari igorriko zaizkio, eta egokiak izan zitezkeen zehapenak egitate arau-hauslearen unean indarrean dagoen udal araudiaren arabera.
3. Zehapen-espedientearen behar bezalako instrukzioa egiteko, zehapen-araubideko gaia agintzen duten printzipio nahiz araei erreparatzea (administrazio publikoek aplikatu ditzaketenak) honako honi aipamen berezia eginez: egoera aringarri eta astungarrien neurketari zehapenak mailakatzeko orduan.

